



ERRUSIERA OINARRIZKO MAILA 1 ETA 2 :HELBURUAK ETA EDUKIAK

OINARRIZKO MAILA

HELBURUAK

Zein dira Oinarrizko mailako 1. kurtsoko helburuak?

Oinarrizko Mailako 1. kurtsoarean amaieran, gaitasun hauek izango dituzte ikasleek:

- Eguneroko gai ei edo gai pertsonalei buruz oso elkarrizketa laburrak (agurrak, aurkezpenak, eskerrona eta barkamena), argibide eta oharpen errazak **ulertu**.
- Oinarrizko eginkizunetan esaten den funtsezkoena **ulertu**: erosketak egin, ikastaro batean edo hotel batean izena eman.
- Iragarki eta mezu laburretako funtsezkoena **hauteman**.
- Oharrak, mezu pertsonal laburrak (SMS, mezu elektronikoak, postalak) eta iragarkiak (esaterako, *Vendes*) **ulertu**.
- Ohiko hiztegia duten testu laburretatik informazio orokorra eta espezifikoa **ulertu** eta bereizi.
- Fitxak eta inprimakiak osatzeko jarraibide oso oinarrizkoak **ulertu**.
- Leku publikoetako oinarrizko informazio, jarraibide eta ohar labur eta ohikoak **ulertu** (kaleko, dendetako, jatetxeetako eta garraibideetako kartelak).
- Kortesiako ohiko formulak **erabili** (agurtu, aurkeztu, eskerrak eman, barkamena eskatu, pertsonenganako interesa erakutsi).
- Ohiko gauzak eta mesedeak **eskatu eta eskaini**.
- Informazio pertsonala **eman eta eskatu** (nazionalitatea, non bizi den, jarduerak, interesak, familia, lagunak, eguraldia, etab.)
- Pertsona, leku, jarduera eta interesen aurkezpen eta deskribapen errazak **egin**.
- Eguneroko jarduerekin zerikusia daukaten informazio, jarraibide eta ohar oso oinarrizkoak **idatzi** (esaterako, *Cerco casa*).
- Ereduetatik abiatuta korrespondentzia pertsonal oso sinplea (postalak) **idatzi**.
- Gai ezagunei buruzko testu laburrak **idatzi** esaldi laburrak oinarrizko lokailuez elkartuz "y, o, pero, porque".

Zein dira Oinarrizko mailako 2. kurtsoko helburuak?

Oinarrizko Mailaren 2. kurtsoaren amaieran, gaitasun hauek izango dituzte ikasleek:

- o Eguneroko elkarrizketa errazetan esaten direnak **ulertu**, solaskideek laguntzen badiete.
- o Elkarrizketen gaia **hauteman**.
- o Banketxe, denda, geltoki eta antzeko ohiko trukeetan esaldi eta esamoldeak **ulertu**.
- o Iragarki edo mezu publiko labur eta errazen esanahi orokorra **ulertu**, saltoki handietan, aireportuetan, eta bestelakoetan.
- o Telebistako albisteen oinarrizko informazioa **ulertu**, irudiek ahozko informazioari laguntzen badiote.

- o Eguneroko ekintzekin zerikusia duten ohar eta mezu laburrak **ulertu** (sms-ak, posta elektronikoa, postalak).
- o Gutun pertsonal labur eta errazak **ulertu**.
- o Kontu praktikoei buruzko gutun formal laburrak **ulertu**. (hoteletan erreserbak egin, atzerriko ikastaroei buruzko informazioa eskatu).
- o Egunerokoan erabiltzen diren argibideak eta jarraibideak **ulertu** (errezetak, tresnen funtzionamendua, joko-arauak, kaleetako eta dendetako kartelak).
- o Eskuliburu ilustratuetan eta bestelako informazio-materialetan (menuak, zerrendak eta ordutegiak, kultur eta kirol jarduerak) informazioa aurkitu eta **ulertu**.
- o Kazetaritza testu labur eta errazetan informazio garrantzitsuena **identifikatu**.
- o Narrazio edo kontakizun labur eta errazak **ulertu**.

- o Egunerokoarekin zerikusia duten jarduera eta egoerei loturiko informazio, argibide eta jarraibideen ohar edo mezu errazak **idatzi**.
- o Gutun pertsonal sinpleak **idatzi**; eskerrak emateko, barkamena eskatzeko, norbere buruz edo inguruaz hitz egiteko (familia, bizi-baldintzak, lana, lagunak, zaletasunak...).
- o Gutun formal sinple eta laburrak **idatzi**, zerbitzuren bat edo informazioa eskatzeko.
- o Esaldi sinpleen bitartez gertakari bat **deskribatu**, zer, noiz eta nola gertatu den adieraziz (festa bat, istripu bat, etab.)
- o **Testuari koherentzia eman**, denborazko eta kausazko hitz eta egitura nagusiak erabiliz.

- o Norberaren egoera pertsonala modu sinplean **deskribatu** (non bizi den, familia, ikasketak, lana, zaletasunak).
- o Iraganeko jarduera eta bizipenak modu sinple eta egituratuan **deskribatu**.
- o Gizarte **harremanak izan** (agurtu, barkamena eskatu, norbait gonbidatu, etab.).
- o Eguneroko truke eta zeregin sinpleak **gauzatu** (banketxeetan, bidaia-agentzietan, dendetan, eta abarren.)
- o Informazio zehatza **eman eta hartu** (leku batera nola iritsi azaldu).
- o Informazio zehatza trukatzeko, eskaintzak egiteko eta eguneroko bizimoduari buruzko iradokizunak egiteko elkarrizketetan **parte hartu** (lanari buruzkoak, denbora libreari buruzkoak, etab.)
- o Ohiko egoeren inguruan **adostasunak lortu** (hitzordu pertsonalak eta formalagoak: medikuarenean, esaterako.)

EDUKIAK

Helburu horiek lortzeko, hizkuntza-funtzio hauek ikasiko dituzte:

1. Informazio orokorra ematen eta eskatzen:

(*etzana* → Oinarrizkoa 2)

(*lodia* → Oinarrizkoa 1 eta 2)

- Informazioa eman eta eskatu, honako hauei buruz: izena, adina, egoera zibila, nazionalitatea, lanbidea, telefono-zenbakia, helbidea, posta elektronikoa...
- **Pertsonen buruzko informazioa eskatu eta eman (lanbidea, familia, trebetasunak, gustuak, zaletasunak), baita ordutegi, data, otordu, leku (eskola eta bizilekua), jaki, edari eta bestelakoei buruz ere.**
 - Zerbait norena den galdetu eta esan.
 - **Pertsonak, aldarreak eta egoera fisiko sinpleak deskribatu.**
 - Ohiko ekintzei edo egungo munduari buruz hitz egin.
 - Hizketaren unean gertatzen diren ekintzei buruz hitz egin.
 - **Pertsonak, objektuak (jantziak, altzariak, eraikinak eta eraikinetako bulegoak), egoerak eta ekintzak deskribatu.**
 - Eguraldiaz hitz egin.
 - **Espazioan aurkitu eta kokatu (gelako, etxeko, hiriko objektuak).**
 - Zerbait edo norbait urrun edo gertu dagoen adierazi.
 - Iraganeko gertakari edo ekintza bati buruz hitz egin edo galdetu.
 - **Esandakoa zuzendu, atzera egin, zalantza egin.**
 - Azalpen batean zerbait zerrendatu.
 - Oraina eta iragana konparatu.
 - *Laburtu (filmak, liburuak...).*
 - Definitu.
 - **Gertakari bat ezagutzen den edo ez adierazi.**
 - Aurreikuspenak eta iragarpenak egin.
 - **Asmoei eta burubideei buruz hitz egin.**
 - *Helburuak azaldu (asmoak eta promesak).*
 - **Pertsona, gauza, gertakari edo ekintzei buruzko hipotesiak azaldu.**
 - **Denbora sekuentziak azaldu.**
 - Hitza eskatu eta eman, hizketan ari denaren jarduna eten, hitz egiten utzi, etab.

2. Jarrerak eta iritziak azaltzen eta besteenak baloratzen:

- Gustuei buruzko informazioa eskatu eta eman.
- Zerbait dakigula edo ez dakigula adierazi.
- **Egoera fisikoari eta osasunari buruzko informazioa eman eta eskatu: hotza edo beroa, logura, gosea edo egarria, zaporea, ongizatea edo ezinegona.**
- Barkamena eskatu eta barkatu.
- *Zalantza azaldu.*
- Interesa edo interes eza adierazi.
- Adostasuna edo ezadostasuna adierazi.
- Proposamen edo ideia baten alde edo aurka azaldu.
- Lehentasunak azaldu.
- Hautaketak egin.
- Axolagabetasuna adierazi.
- **Harridura adierazi.**
- Errukia adierazi.
- **Desio bat adierazi.**
- *Aldarteari eta egoera horien ondorioei buruzko informazioa eman eta eskatu: gogaitasuna, gogobetetasuna edo gogobetetasun eza, miresmena, interesa, estimua, poza, etab.*

3. Konbentzitzen:

- *Laguntza eskatu eta eskaini.*
- *Gelako jarduerari buruzko aginduak eman.*
- Zerbait egiteko baimena eskatu, eman edo uko egin.

- *Laguntza eskaini, eskatu, onartu eta uko egin.*
- *Zerbait egitera bultzatu.*
- *Argibideak eskatu eta eman (helbideak, leku batera nola iritsi).*
- *Lankidetzak eskatu.*
- *Mezu bat errepikatzeko edo mantsoago hitz egiteko eskatu.*
- *Hitz edo esapideen esanahia edo itzulpena galdetu edo eman.*
- *Ulertu ez den hitz edo izen berezi bat letraka esateko eskatu.*
- *Ahotsari buruzko zehaztasunak eskatu: ozenago hitz egiteko, baxuago hitz egiteko, etab.*
- **Zerbait egiteko asmoari, borondateari edo erabakiari buruzko informazioa eskatu eta eman.**
- *Betebehar pertsonala adierazi.*
- *Aholkuak eskatu eta eman.*
- *Laguntza eskatu.*
- *Debekuak adierazi.*
- *Ariketak proposatu eta iradokizunei erantzun.*
- **Hitzorduek adostu, norbaitekin hitzordua egin.**
- *Barkamena adierazi, onartu eta errefusatu, erabakia arrazoituz.*
- **Oinarrizko telefono-elkarrizketak izan (komunikazioa hasi, norbaitez galdetu, solaskideari itzaroteko eskatu, entzuten edo ulertzen den egiaztatu, agurtu...).**
- *Solaskideari hizketan jarraitzeko eskatu.*

4. Sozializatzen:

- *Agurtu, agurrei erantzun eta agur esan.*
- **Nork bere burua aurkeztu, besteak aurkeztu eta aurkezpeni erantzun.**
- *Norbaiti buruzko informazioa eskatu eta eman.*
- *Eskerrak eman eta esker oneko hitzei erantzun.*
- *Zoriondu eta zorion hitzei erantzun.*
- *Arreta bereganatu.*
- *Ongietorria eman.*
- *Oinarrizko mezuak errepikatu.*
- *Ulertu dela edo komunikazioari eusten zaiola egiaztatu eta adierazi.*
- *Gonbidapenak onartu edo baztertu.*
- *Barkamena eskatu.*
- **Jasotako informazio edo kontakizunei erantzun interesa, harridura, poza, pena etab estelakoak adieraziz.**
- *Mezuak ulertu diren egiaztatu.*

Nolako testuak irakurriko dituzte?

(berdina 1. eta 2. kurtsoetarako)

- *Gutun pertsonalak.*
- *Gutun formalak.*
- *Aginduak eta jarraibideak: errezetak, jarraibideak, lekuren bat aurkitzeko argibideak.*
- *Mezuak.*
- *Posta elektronikoa.*
- *Curriculum vitaeak.*
- *Iragarkiak eta oharak.*
- *Ordutegiak eta egutegiak.*
- *Informazio kartelak, erregulazioak.*
- *Menuak eta kartak.*
- *Planoak eta kale-mapak.*
- *Inprimakiak eta galdetegiak.*
- *Propaganda, iragarki liburuxkak.*
- *Aldizkari eta egunkarietako artikulua errazak.*
- *Komikiak eta binetak.*
- *Horoskopoak.*
- *Turismo-, bidai- eta aisialdi-gidak.*
- *Publizitate testuak.*

- Web orrialdeak.
- Iraganeko eta egungo jardueren kontakizuna.
- Egokitutako eleberriak.

Nolako testuak entzungo dituzte?

- Lagunarteko elkarrizketak lagunekin, familiako kideekin, ikaskideekin.
- Elkarrizketak banketxe, denda, agentzia eta bestelakoetan.
- Telefonozko elkarrizketak.
- Erantzungailu automatikoko mezuak.
- Laneko elkarrizketak.
- Irrati eta telebistako informazioa.
- Iragarki publikoak eta publizitate-iragarkiak.
- Albiste laburrak.
- Eguraldi iragarpenak.

Nolako testuak idatziko dituzte?

- Gutun pertsonalak.
- Gutun formalak.
- Mezuak.
- Posta elektronikoa.
- Curriculum vitaeak.
- Iragarkiak eta oharra.
- Informazio kartelak, erregulazioak.
- Inprimakiak eta galdetegiak.
- Iraganeko eta egungo jardueren kontakizuna.

Zer gai landuko dituzte?

- Nork bere burua identifikatzeko
- Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua
- Eguneroko bizimoduko jarduerak.
- Denbora libre eta aisialdia.
- Bidaia.
- Giza eta gizarte harremanak.
- Osasuna eta zainketa fisikoa.
- Heziketa.
- Erosketak eta merkataritza-jarduerak
- Elikadura.
- Ondasunak eta zerbitzuak.
- Hizkuntza eta komunikazioa.
- Klima, atmosferaren gorabeherak eta ingurumena.
- Zientzia eta teknologia.

Zer lexiko ikasiko dute?

Nork bere burua identifikatzeko:

- Pertsonen izaerarekin, trebeziekin eta deskribapen fisikoarekin zerikusia duen oinarrizko lexikoa.
- Jantzkerarekin eta osagarriekin zerikusia duen lexikoa.

Etxebizitza, etxea eta ingurua:

- Etxebizitza: motak, kokapena, atalak eta banaketa.
- **Altzariak, objektuak eta tresnak.**
- **Hiria: kokapena, atalak, kaleak, eraikinak, berdeguneak eta monumentuak.**
- *Ikasten ari garen hizkuntzaren herrialdearen edo herrialdeen lurralde-banaketa.*

Eguneroko bizimoduko jarduerak:

- o **Denbora-tarteei buruzko lexikoa: urteak, hilabeteak, asteak, egunak, egunaren atalak eta ordua.**
- o Etxeko, laneko edo ikastetxeko jarduerekin zerikusia duen oinarritzko lexikoa.

Denbora libre eta aisialdia:

- o **Jarduerekin zerikusia duen oinarritzko lexikoa: kirola, kultura-jarduerak...**
- o Aisialdirako lekuak: antzokia, museoa, hondartza...

Bidaiak:

- o Turismoarekin eta emigrazioarekin zerikusia duen lexikoa.
- o Garraiobideak.
- o Bidaia motak: lanekoak, atsedenekoak, ikasketa-bidaiak.
- o Herrialdeen izenak.

Giza eta gizarte-harremanak:

- o Familiako kideekin zerikusia duen lexikoa.
- o *Laguntasunarekin, sentimenduekin, maitasunarekin zerikusia duen lexikoa.*
- o *Lan munduarekin zerikusia duen lexikoa.*

Osasuna eta zainketa fisikoa:

- o *Gorputzeko atalak.*
- o *Sintomak eta gaixotasunak.*
- o *Osasun munduarekin zerikusia duen lexikoa.*

Heziketa:

- o *Hezkuntzarekin zerikusia daukan lexikoa: hezkuntza-zentroak, ikasgaiak, kalifikazioak, ziurtagiriak...*
- o Gelako jarduerekin eta ikasmaterialarekin zerikusia duen lexikoa.

Erosketak eta merkataritza jarduerak:

- o Zeregin pertsonaletarako objektu ohikoenen izenak.
- o *Merkataritzaguneak.*
- o *Prezioa, txanponak, ordaintzeko bideak...*

Elikadura:

- o *Elikagaiekin eta ontziekin zerikusia duen lexikoa.*
- o Janariarekin zerikusia duten tresnen izenak.
- o *Kopuruak, pisuak eta neurriak.*

Ondasunak eta zerbitzuak:

- o *Zerbitzu pribatuak eta publikoak: bankuak, posta...*

Hizkuntza eta komunikazioa:

- o Hizkuntzak ikasteko prozesuarekin zerikusia duen oinarritzko lexikoa.
- o Munduko hizkuntzak.
- o Komunikabideak: telebista, irratia, eta abar.

Klima, atmosferaren gorabeherak eta ingurumena:

- o Atmosfera eta klima fenomenoak.
- o *Geografia elementuak.*

Zientzia eta teknologia:

- o *Telefonoarekin zerikusia duen lexikoa.*
- o *Ordenagailuarekin, Internetekin eta bestelako komunikabideekin zerikusia duen oinarritzko lexikoa.*

Zer ikasiko dute errusiera hitz egiten den herrien kulturari buruz?

Nork bere burua identifikatzeko:

- o Izen-abizen ohikoenak.
- o Abizen kopurua eta ordena.
- o Agurtzeko eta adio esateko keinuak.

Etxebizitza, etxea eta ingurua:

- o Ohiko etxebizitza motak.
- o Oinarrizko geografia alderdiak.

Eguneroko bizimoduko jarduerak:

- o *Lan baldintzak eta enplegua bilatzea.*
- o *Puntualtasuna.*
- o **Gizarte-elementuak.**

Denbora librea eta aisialdia:

- o Denbora libreko eta aisialdiko jarduera ohikoenak.
- o **Arte-kultura erreferenteak.**
- o *Ospakizun eta zeremonia esanguratsuenak.*

Bidaia:

- o *Gizalegezko ohiturak: gidatzeko arauak, etab.*
- o **Turismo-helmuga ezagunenak.**

Giza eta gizarte-harremanak:

- o **Familia bizitzako erabilerak eta ohiturak.**
- o Familia-egitura.

Heziketa:

- o *Eskola sistema.*

Erosketak eta merkataritza jarduerak:

- o *Kontsumo-ohiturak.*

Elikadura:

- o **Gastronomia- eta elikadura-ohiturak.**
- o **Jai jakinetarako janari tipikoak.**

Ondasunak eta zerbitzuak:

- o *Denden, banketxeen eta bestelakoen ordutegiak.*

Zientzia eta teknologia:

- o *Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eragina.*

Zer gramatika-egitura ikasiko dituzte?

Fonologia, ortografia eta gramatika arloko gaitasun linguistikoak komunikatzen laguntzeko bideak dira eta ariketetan erabiliz ikasten dira.

Testuak ulertzeko eta sortzeko –ahozko nahiz idatzizko diskurtso-sekuentzia oro- testuen ezaugarriak aztertuko dituzte:

o Egokitzapena.

Komunikazio asmoa.
Testuingurua eta egoera.
Hizkuntza erregistroa eta maila.

o Testu-koherentzia.

Edukiaren egituraketa.

Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak.
Lexikoa aukeratzea eta hizkuntza-funtzioak.

o **Testu-kohesioa.**

Prosodia eta ortografia elementuak (intonazioa eta puntuazioa).

Errepikatze baliabideak (izenordainak, izenen elipsia, sinonimia, eremu semantikoak...)

Diskurtso-antolatzaileak:

Leku-antolatzaileak (kokatzeko).

Denbora-antolatzaileak (ondo ondoko ekintzak adierazteko).

Perpau koordinatuen eta mendekoen arteko testu-antolatzaileak edo lokailuak.

Perpauen eta paragrafoen arteko lotura eta harreman logikoko testu-antolatzaileak edo lokailuak.

Ahozko diskurtsoari eusteko antolatzaileak.

Ikasi nahi den hizkuntzan komunikatzeko, honako **gramatika-egitura** hauek erabiltzen ikasiko dute:

EDUKI MORFOSINTAKTIKOAK.

OINARRIZKO MAILA 1 (A1)

Perpau bakuna.

- Perpau motak, osagaiak eta osagaien kokapena.
 - Adierazpen perpauak.
 - Subjektua hasieran.
 - -ZO/OZ hasieran.
 - -Osagarri zirkunstantziala hasieran.
 - Osagarri zirkunstantziala hasieran.
 - Ezezkako perpauak.
 - Ezeztapenaren kokapena.
 - Galde-perpauak.
 - Guztira
 - -Zati galdera, galdetzailearekin eta elipsian.
 - Harridura-perpauak.
 - Adierazpen perpauak harridura ikurrarekin.
- Komuntadura fenomenoak.

Perpau elkartuak.

- Harreman logikoen adierazpena.
 - Aurkapena: *a, но*
 - Kausa: *потому что*
 - Denbora harremanak.
 - Aurrekotasuna: *до того как.*
 - Aldiberekotasuna: *когда, пока.*
 - Ondokotasuna: *после того как.*
 - Harreman determinatzaileak: *который*
- Komuntadura fenomenoak.

Izena.

- Nukleoa.
 - Izena.
 - Motak: arruntak eta bereziak.
 - Generoa: maskulinoa, femeninoa, neutroa; flexio erregularra eta irregularra.
 - Kopurua: flexio erregularra eta forma aldaezinak.
 - Kasua: nominatiboa, genitiboa, datiboa, akusatiboa, instrumentala, preposiziozkoa.
 - Kasuen funtzio nagusien sarrera.
- Izenordainak
 - Pertsonalen kasu guztiak.
 - Erakusleak.
 - Edutezkoak.

- Galdetzaileak/harridurazkoak.
- Ezezkako izenordainak: *никто*.
- Nukleoaren aldaketa.
- Determinatzaileak.
- Erakusleak: generoa, kopurua eta kasua.
- Edutezkoak: generoa, kopurua eta kasua.
- Zenbatzaileak: zenbakizkoak eta beste zenbatzaile batzuk.
- Aposizioa.
- Aldaketak Izenondo eta Preposizio Sintagmen eta erlatibozko perpausen bidez.
- Sintagmako elementuen kokapena.
- (Det+) (Adj.S+) G (+Prep.S) (+erlatibozko perpausa)
- Komuntadura fenomenoak.
- Izen sintagmako funtzio sintaktikoak: Subj., Atrib., OZ, ZO eta OZ

Izenondoa.

- Nukleoa: adjektiboa
- Generoa: maskulinoa, femeninoa, neutroa; flexio erregularra; forma luzea.
- Kopurua: pluralaren osaera.
- Kasu: singularrean deklinatu (gogorra, biguna eta mistoa).
- Gradua: positiboa.
- Nukleoa aldatu AdbS erabiliz.
- Sintagmako elementuen kokapena: (AdbS+) G (+PrepS)
- Komuntadura fenomenoak.
- Funtzio sintaktikoak: Atrib.

Aditza.

- Nukleoa: aditza.
- Motak eta taldeak: 1) читать-читаю; 2) уметь-умею; 5) отдохнуть-отдохну; 6) давать-дают; 8) писать-пишут; 9) петь-поют; 10) мочь-могут; 11) идти-идут; 12) ехать-едут; 13) хотеть-хотят; 15) жить-живут; 16) пить-пьют; 17) есть-едят.
- Denbora
- Orainaldiaren adierazpena.
- Iraganaren adierazpena.
- Etorkizunaren adierazpena: etorkizun sinplea eta konposatua.
- Aspektua.
- Burutugabea: iraupenezkoa, ohiturazkoa, errepikapenezkoa.
- Burutua: puntuala eta ekintza amaitua (*написать, прочитать*)
- Modalitatea.
- Faktualtasuna: ekintza aditzak eta orainaldiko, iraganeko eta etorkizuneko aditz-denborak.
- Beharra: *Необходимо/надо* + Inf.; *нужен/нужна/нужно/нужны* + IS izenean.
- Betebeharra: *Должен/обязан* + Inf.
- Gaitasuna:
- Мочь/уметь* + Inf.
- Baimena: *Можно/мочь* + Inf.
- Aukera: *Можно* + Inf.; *Возможен/возможна/возможно/возможны* + IS; *Может быть/Могут быть* + IS.
- Asmoa: *Хотеть/желать* + Inf.
- Boz aktiboa.
- Aditzaren forma ez-pertsonalak.
- Infinitiboa.
- Erabilera nagusiak aditzekin.
- Nukleoa aldatzea preposizio finkoaren bitartez eta ezeztapena.
- Aditz-sintagmaren funtzio sintaktikoa: ad., subj., OZ, Atrib. eta OZ.

Adberbioa.

- Nukleoa: adberbioa.
- Motak: nolakotasuna, modua, lekua, denbora, galdera eta harridura.
- Gradua: positiboa.
- Sintagmako elementuen kokapena.
- (AdbS+)N; (PrepS+)N

- Sintagmako funtzio sintaktikoak: Atrib. IO eta OZ.

Preposizioak.

- Nukleoa.
 - Preposizioak genitiboarekin, datiboarekin, akusatiboarekin, instrumentala eta preposiziozkoa.
 - Preposizio lokuzioak genitiboarekin, datiboarekin, akusatiboarekin, instrumentalarekin eta preposiziozkoarekin.
- Sintagma aldatzea AdbS eta PrepS erabiliz.
- Sintagmako elementuen kokapena.
 - (Adb+)G+Terminoak; (PrepS)G+Terminoak.
- Preposizio-sintagmaren funtzio sintaktikoak: IZren, OZren, ZOren eta OZren atala da.

Fonetika, fonologia eta ortografia edukiak.

Fonetika eta fonologia.

- Bokalen soinuak eta fonemak.
 - Monoptongoak: aurrekoak, erdikoak, atzekoak.
 - Konbinazioak.
- Prozesu fonologikoak.
 - Kontsonanteak ahoskabe bihurtzea hitzaren amaieran.
 - Asimilazioa.
 - Bokal murrizketak.
 - Bokal eta kontsonante alternantziak.
- Bakartutako elementu lexikoen azentua.
 - Silaba tonikoak eta atonoak.
 - Azenturik gabeko silaba bakarrekokoak
- Azentua eta azenturik eza: tonuaren irizpideak sintagman.

Ortografia.

- Idazkera sistema: Alfabeto zirilikoak.
- Fonema eta soinuen adierazpen grafikoa.
 - Kokapen erlatiboaren arabera elkarrekikotasunak.
- Atzerriko hitzen ortografia, jatorriaren arabera.
- Letra larrien erabilera.
- Ortografia: zeinu ortografikoak: dieresia, gidoia eta puntuazio-zeinuak.
- Hitzen zatiketa lerroaren amaieran. Silaba-egitura.

OINARRIZKO MAILA 2 (A2)

Perpaus bakuna.

- Perpaus motak, osagaiak eta osagaien kokapena.
 - Baiezkako adierazpen perpausak.
 - Puntuazio-zeinuen erabilera.
 - Galde-perpausak.
 - Puntuazio-zeinuen erabilera.
 - Harridura perpausak.
 - Puntuazio-zeinuen erabilera.
 - Ezezko perpausak.
 - Puntuazio-zeinuen erabilera.
 - Aginte-perpausak.
- Komunztadura fenomenoak.
 - Izen sintagmako genero, numero eta kasu komunztadura:
 - Subjektua eta atributua (generoa, numeroa eta kasua);
 - Subjektua eta predikatua (aditzaren iraganeko pertsona, numeroa, generoa)

Perpaus elkartuak.

- Perpaus elkartu koordinatuak.

- Perpaus motak.
 - Perpausak emendiozko juntagailuekin: *и, и... и.*
 - Perpausak aurkaritza juntagailuekin: *а, но.*
 - Perpausak juntagailu hautakariekin: *или, или... или.*
- Mendeko perpaus elkartuak.
 - Perpaus motak.
 - Subjektu-perpausak.
 - Subjektu-perpausetan erabiltzen diren juntagailuak eta juntadura-hitzak.
 - Perpaus osagarriak.
 - Perpaus osagarrietan erabiltzen diren juntagailuak eta juntadura-hitzak: *чтобы, кто, что, какой, чей, сколько, где, куда, откуда, когда, как, почему, зачем, ли.*
 - Perpaus determinatzaileak.
 - Perpaus determinatzaileetan erabiltzen diren juntagailuak eta juntadura-hitzak: *который, что.*
 - Denbora-perpausak:
 - Aurrekotasuna: *до того как.*
 - Aldiberekotasuna: *когда, пока.*
 - Ondokotasuna: *после того как.*
 - Helburuzko perpausak: *чтобы.*
 - Kausazko perpausak eta *потому что* juntagailua.
 - Komuntadura fenomenoak.

Izenak eta izenondoak.

- Izena.
 - Motak: arruntak eta bereziak.
 - Generoa: maskulinoa, femeninoa, neutroa; flexio erregularra eta irregularra; arrunta.
 - Numeroa: singularra eta plurala; flexio erregularra eta irregularra; forma aldaezinak.
 - Kasua: nominatiboa, genitiboa, datiboa, akusatiboa, instrumentala, preposiziozkoa.
 - Kasuen funtzio nagusien sarrera.
 - Modifikatzaileak.
 - Atzizki nagusien aurkezpena.
 - Artizkiak izen elkartuetan: *-о-, -е-*.
- Adjektiboa
 - maskulinoa, femeninoa, neutroa; flexio erregularra eta irregularra; forma luzea.
 - Numeroa: singularra eta plurala; flexio erregularra eta irregularra; forma aldaezinak.
 - Kasu: singularrean deklinatu (gogorra, biguna eta mistoa).
 - Forma: luzea eta laburra.
 - Gradua.
 - positiboa.
 - Absolutua (*быстрый*).
 - erlatiboa (*не очень быстрый*).
 - Modifikatzaileak.
 - Artizkiak adjektibo elkartuetan: *-о-, -е-*.

Determinatzaileak.

- Zenbatzaileak.
 - Zenbatzaile kardinalak.
 - Deklinazio arauen hurbilketa.
 - Zenbatzaile ordinalak.
 - Deklinazio arauen hurbilketa.
 - Zenbatzaile multzokariak .
 - Deklinazio arauen hurbilketa.

Izenordaina.

- Izenordainak
 - Pertsonalak: generoa, numeroa eta kasua.
 - Erakusleak: generoa, numeroa eta kasua.
 - Edutezkoak: generoa, kopurua eta kasua.
 - Galdetzaileak/harridurazkoak.
 - Negatiboak: *никто, ничто.*

Aditza.

- Motak eta taldeak: 1) читать-читаю; 2) уметь-умею; 3) чувствовать-чувствую; 4) встретить-встречу; 5) отдохнуть-отдохну; 6) давать-дают; 7) ждать-ждут; 8) писать-пишут; 9) пить-поят; 10) мочь-могут; 11) идти-идут; 12) ехать-едут; 13) хотеть-хотят; 14) брать-берут; 15) жить-живут; 16) пить-пьют; 17) есть-едят.
- Iragankortasuna eta iragangaiztasuna.
- Denbora.
 - Orainaldiaren adierazpena.
 - Iraganaren adierazpena.
 - Etorkizunaren adierazpena: etorkizun sinplea eta konposatua.
- Modua.
 - Indikatiboa.
 - Agintera.
 - Baiezkoa.
 - Ezezkoa.
 - Aspektua.
 - Burutugabea: iraupenekoa, ohiturazkoa, errepikapenezkoa, abiakaria (*начинать* + Inf./IS) eta amaierakoa (*прекращать* + Inf./IS).
 - Burutua: puntuala eta ekintza amaitua (*написать, прочитать*).
 - Modalitatea.
 - Faktualtasuna: ekintza aditzak eta orainaldiko, iraganeko eta etorkizuneko aditz-denborak.
 - Beharra: *необходимо/надо* + Inf.; *нужен/нужна/нужно/нужны* + IS izenean.
 - Betebeharra: *должен/обязан* + Inf.
 - Gaitasuna: *мочь/уметь* + Inf.
 - Baimena: *можно/мочь* + Inf.
 - Aukera: *можно* + Inf.; *возможен/возможна/возможно/возможны* + IS; *может быть/могут быть* + IS.
 - Asmoa: *хотеть/желать* + Inf.
 - Boza.
 - Aktiboa.
 - Mugimendu-aditzak.
 - Aurrizkirik gabe.
 - Norabide bakarreko mugimendu-aditzak (I. taldea) (*идти, ехать, бежать, лететь, плыть*).
 - Hainbat norabidetako mugimendu-aditzak (II. taldea) (*ходить, ездить, бегать, летать, плавать*).
 - Aurrizkiekin: *в- (во-), при-, под- (подо-), пере-, вы-, у-*.
 - —ся partikuladun aditzak.
 - —ся partikula duten aditzen esanahi nagusien hurbilketa.
 - Aditzaren forma ez-pertsonalak.
 - Infnitiboa.
 - Erabilera nagusiak aditzekin.
 - Aditz-aurrizkien balio nagusien hurbilketa.
 - Aditz-atzizkien balio nagusien hurbilketa.

Adberbioa.

- Motak: nolakotasuna (*ясно, хорошо*), modua (edo era) (*по-французски*), lekua (*наверху*), denbora (*утром, теперь*), galdera eta harridura (*как, когда, сколько*).
- Gradua.
 - positiboa.
 - Absolutua (*быстро*).
 - Erlatiboa (*не очень быстро*).
- Predikazio-adberbioak.
 - naturaren egoerari eta ingurumenari buruzkoak (*душно, жарко, холодно*)
 - beharrarenak eta ekintzaren posibilitatearenak (*нужно, можно*).
 - ekintzaren denborari buruzkoak (*рано, поздно, пора, время*).
- Adberbio negatiboak: *нигде, никогда*.

Lokailuak.

- Preposizioak eta preposizio-lokuzioak.
 - Motak: lokatiboak, denborazkoak, kausazkoak, helburuzkoak, komitatiboak (c), edutezkoak (y).
- juntagailuak eta juntadura-lokuzioak.
 - Motak:
 - Azalpen-juntagailuak.
 - Juntagailu adbersatiboak.
 - Atribuzio-juntagailuak.
 - Kontzesiozko juntagailuak.
 - Konparaziozko juntagailuak.
 - Baldintza-juntagailuak.
 - Kausazko juntagailuak.
 - Helburuzko juntagailuak.
 - Emaidza-juntagailuak.
 - Denbora-juntagailuak:
 - Aurrekotasuna: *перед тем как, до того как, пока не;*
 - Ondokotasuna: *после того как, когда;*
 - Aldiberekotasuna: *когда, пока.*
 - *что* eta *чтобы* juntagailuen erabilera.
 - Zehar-estiloko juntagailuak *что, чтобы, где, когда, сколько, почему, ли.*
- Partikulak.
 - Beste hitz batzuen esanahiei hainbat ñabardura ematen dizkieten partikulak.
 - galdetzaileak.
 - harridurazkoak.
 - murriztaileak.
 - goratzekoak: *ведь, все-таки, даже.*
 - zehaztasunezkoak: *именно, как раз.*
 - erakusleak (jarraipena).
 - *не* ezezkakoa (jarraipena).
 - Hitz berriak sortzeko partikulak.
 - *не, ни* partikulak.
 - *бы* partikula.
- Interjekzioak (sarrera).

Fonetika, fonologia eta ortografia edukiak.

Fonetika eta fonologia.

Oinarrizko mailan landutako forma guztien berrikusketa orokorra eta kasu berrien hurbilketa.

- Fonetika:
 - Bokalak, diptongoak eta kontsonanteak ezagutu eta zuzen sortu.
 - Fonema eta soinuen adierazpen grafikoa.
 - Posizio erlatiboaren arabera elkarrekikotasuna.
 - Konbinazioak.
- Fonologia.
 - Bokalak, diptongoak eta kontsonanteak ezagutu eta zuzen sortu.
 - Fonema eta soinuen adierazpen grafikoa.
 - Posizio erlatiboaren arabera elkarrekikotasuna.
 - Konbinazioak.
 - Prozesu fonologikoak.
 - Kontsonanteak ahoskabe bihurtzea hitzaren amaieran.
 - Asimilazioa.
 - Bokal murrizketak.
 - Bokal eta kontsonante alternantziak.
 - Bakartutako elementu lexikoen azentua.
 - Silaba tonikoak eta atonoak.
 - Azenturik gabeko silaba bakarrekikoak
 - Azentua eta azenturik eza: tonuaren irizpideak sintagman.
 - Talde fonikoak: Intonazioa.

Ortografia.

- Idazkera sistema: alfabeto zirilikoa.
- Fonema eta soinuen adierazpen grafikoa.
- Kokapen erlatiboaren arabera elkarrekotasunak.
- Ortografia:
 - atzerriko hitzena.
 - zeenbatzaileenak.
 - partikulenak.
- Letra larrien erabilera.
- Zeinu ortografikoak: dieresia, gidoia, marra, komatxoak, azentua, parentesia eta puntuazio-zeinuak.
- Ohiko erabilerako zeinuak.
- Hitzen zatiketa lerroaren amaieran. Silaba-egitura.
- Letra larrien erabilera.
- Laburdurak eta siglak.
- Puntuazioa.
 - Zehar-estiloko puntuazioa.
 - Perpaus bakunetako puntuazioa.
 - Antzeko atalak dituzten perpausetako puntuazioa.
 - Perpaus elkartuetako puntuazioa.
 - Perpaus koordinatuetako puntuazioa.
 - Menpeko perpausetako puntuazioa.

Nola ikasiko dute?

(berdina 1. eta 2. kurtsoetarako)

Kurtso honetako helburua ikasleak hizkuntza eraginkortasunez erabiltzea da; beraz, **ikasgelako eta auto-ikaskuntzako jardueren** oinarria ikaslea **benetako komunikazio-egoeretan** jartzea eta hauei aurre egitea da, hau da, **ulermena, sormena, elkarrekintza eta bitartekaritzako jarduerak**.

Ikasleak hizkuntza erabiltzeko gaitasuna garatzeko eta autonomiaz ikasteko, honako hau aplikatuko da:

Ulermen-estrategiak

- o Norberaren ezagupenetan eta esperientzietan oinarrituta hipotesiak eratu, formatua eta irudiak kontuan hartuta.
- o Soinuak ezagutu eta dagozkien grafiekin identifikatu (edo alderantziz).
- o Ahozko mintzairaren ezaugarriak ezagutu (intonazioa, erritmoa, etenak, ahotsaren modulazioa), solaskidearen asmoa zein den ulertzeko.
- o Ahozko mintzairan hizkuntzaz gaindiko elementuak behatu eta ezagutu (keinuak, jarrerak...)
- o Hizkuntzaren berezko eduki eta arau kulturalak behatu eta ezagutu.
- o Ezagunak ez diren hitzak identifikatu honakoak erabiliz: norberaren ezagutzak, esaldiaren zentzu orokorra, egoera, testuingurua, beste hizkuntzen ezagutza, gramatika-gakoak edo lexiko-gakoak.
- o Estrategia pertsonalak erabili (hitz-gakoak idatzi edo azpimarratu, hitzen edo lokailuen zerrendak egin...).
- o Hitz ezezagunen esanahiaren gaineko hipotesiak egin ondoren hiztegia erabili.

Adierazpen-estrategiak

- o Ereduetatik abiatuz soinuak, intonazio jarraibideak eta grafiak errepikatu.
- o Ikasitako hizkuntza-egiturak erabiliz ahozko eta idatzizko testuak sortu.
- o Orekatzeko estrategiak erabili, hala nola, parafraseatu, edota ama-hizkuntzako hitzak, hitz-betegarriak, sinonimoak, etab. erabili.
- o Mintzakideek emaniko zeinuen bidez arrakasta eta hutsegiteak aztertu eta auto-ebalatu (huts egin gabeko errepikatzea, keinuak, ...), auto-zuzenketarako eta bere buruarengan konfidantza areagotzeko.

Elkarrekintzarako estrategiak

- o Maiz erabiltzen diren esaldi estandarrik erabili (zoriondu, agurtu, adio esan, zortea opa izan...), ahoz zein idatziz.
- o Hobeto ulertu ahal izateko mintzakidearen jokabidea behatu eta arretaz zaindu.

- o Isiluneak edo komunikazio-hutsak saihesteko estrategia orekatzaileak erabili: laguntza eskatu, errepikatzeko edo argitzeko eskatu, ahozkoa ez den hizkuntza erabili, gaia aldatu, pentsatzeko astia hartzeko esamoldeak erabili...
- o Mezua ulertu dela baieztatu: mintzakideari zuzen dezala eskatu eta balizko gaizkiulertuak argitu.

Autoikasketarako estrategia

- o Baliabide pertsonalak (testu-liburua, norberaren hiztegia, oharrak, etab.), ikastetxean daudenak (liburutegia, baliabide-gela, etab.) edo bertatik kanpokoak (Internet) aurkitu eta eraginkortasunez erabili.
- o Hiztegia, gramatika, etab. ikasteko oinarrizko estrategiak aurkitu eta ikasi den hizkuntza bizkor eta sarritan erabili.
- o Ikaskuntza errazteko estrategiak erabili: orekatzaileak (parafraseatu, mimika erabili, etab.), afektiboak (hutsegitearen aurrean norberaren buruarengan konfiantza eduki, ataza bat egiteko arriskua hartu) eta sozialak (ikaskideekin lan egin, jatorrizko hitzuneekin hitz egin, etab.).
- o Ikasteko eta lanerako teknikak garatzeko estrategiak erabili: buruz ikasteko teknikak (erlazio mentalak, mapa mentalak... sortu), kognitiboak (aztertu, hausnartu, arrazoitu...) eta metakognitiboak (helburuak markatu, gertaera berriak eta iraganekoak lotu).
- o IKTen bidez komunikazio-egoeretan parte hartu (mugikorretako mezuak, txatak, posta elektronikoak...).
- o Hutsegite ohikoenak zein diren hauteman, zergatiak aztertu, eta hutsegitea ikasketa prozesuan ezinbesteko elementua dela barneratu.
- O Hutsegitea ikasketa prozesuan ezinbesteko elementua dela barneratu.

ONARRIZKO MAILA

GAITASUN BAKOITZA EBALUATZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

ONARRIZKO MAILA 1

IRAKURMENA

Ikasleek kurtso honen gaitasunak eskuratu dituztela ulertuko da honako hauetarako gai direnean:

- Informazio-testu erraz eta laburren eta deskribapen errazen ideia nagusia ulertu, batez ere testua azaltzen laguntzen duten ilustrazioak baldin badituzte.
- Testu labur eta errazak ulertu, hitz ezagunen eta oinarrizko esamoldeen laguntzaz, eta adibidez testuko zenbait zati berriro irakurritik.
- Idatzizko argibide labur eta errazak ulertu eta jarraitu, batez ere ilustrazioak baldin badituzte.
- Egunerokoari lotutako testu bateko (adibidez, iragarki batekoak) hitz eta esamolde errazak ezagutu.
- Mezu labur eta errazak ulertu, esaterako, postal bat edo posta elektronikoko mezu bat.

ENTZUMENA

Ikasleek kurtso honen gaitasunak eskuratu dituztela ulertuko da honako hauetarako gai direnean:

- Eguneroko behar errazei loturiko esamoldeak ulertu, betiere poliki eta argi esaten badira, eta behin baino gehiagotan errepikatzen badira.
- Mantso eta argi artikulatutako diskurtsoak ulertu, esanahia ulertzeko eten luzeak dituztenak.
- Galdera eta argibide labur eta errazak ulertu, eta argibide labur eta errazei jarraitu.
- Zenbaki, prezio eta orduen esaldiak ulertu.

IDAZMENA

Ikasleek kurtso honen gaitasunak eskuratu dituztela ulertuko da honako hauetarako gai direnean:

- Isolatutako esamolde eta esaldiak idatzi.
- Egunerokoarekin zerikusia duten ohar errazak idatzi.
- Postal edo posta elektronikoko labur eta errazak idatzi.
- Inprimakiak datu pertsonalekin bete.
- Nork bere bizilekua deskribatu.

MINTZAMENA

Ikasleek kurtso honen gaitasunak eskuratu dituztela ulertuko da honako hauetarako gai direnean:

- Nork bere burua aurkeztu, eta pertsoneri eta lekuei buruzko esaldi erraz eta bakartuekin hitz egin.
- Bere burua eta inguru hurbila deskribatu: lanbidea, familia, bizitokia.
- Polikiago errepikatzeko, esandakoa azaltzeko eta zuzentzeko aukera ematen duten elkarrizketetan parte hartu.
- Egunerokoari lotutako galdera errazak egin eta halakoei erantzun.

OINARRIZKO MAILA 2

IRAKURMENA

Ikasleek kurtso honen gaitasunak eskuratu dituztela ulertuko da honako hauetarako gai direnean:

- Hitz arruntak eta erabilera komuneko nazioarteko hitzak dituzten testu labur eta errazak ulertu.
- Egunerokoan erabiltzen diren tresnei buruzko argibideak dituzten testu labur eta errazak ulertu.
- Informazio espezifiko atera, gutunak, liburuxkak, menuak, zerrendak, ordutegiak eta bestelako material errazak erabili.
- Gutun pertsonal labur eta errazak; baita kontu praktikoei buruzko gutun formal laburrak ere, eskaerak berresteko eta bekak emateko agiriak, esaterako.
- Kazetaritza-testu labur eta errazetan, gertaerak deskribatzen dituzten albisteen laburpenetan esaterako, informazio nagusia ulertu.
- Normalean leku publikoetan (kalean, tren geltokian, metroan, aireportuetan, etab.) egoten diren seinaleak eta oharrak ulertu.

ENTZUMENA

Ikasleek kurtso honen gaitasunak eskuratu dituztela ulertuko da honako hauetarako gai direnean:

- Bera lekuko dela sortzen diren elkarrizketen esanahi orokorra eta informazio espezifiko ulertu eta gai aldaketak hauteman, hizkera mantsoa eta argia bada.
- Parte hartzen duen elkarrizketetan sortzen diren gai ezagunei buruzko diskurtso argiak eta hizkera estandarrekoak ulertu, betiere informazioa eska badezake.
- Eguneroko truke eta zereginen buruzko argibide errazak ulertu, leku batetik bestera oinez edo garraiobide publikoan joateko, esaterako.

- Telebistan gertakari, istripu, eguraldi-buletin eta antzekoei buruz emandako albisteen ideia nagusia ulertu eta identifikatu, ahozko informazioa osatzeko ikusizko materialak baldin badaude.
- Mezu eta ohar argi eta errazen ideia nagusia ulertu eta hauteman.
- Eguneroko gaiekin zerikusia duten grabatutako pasarte laburren oinarritzko informazioa ulertu, betiere mantso eta argi hitz egiten bada.

IDAZMENA

Ikasleek kurtso honen gaitasunak eskuratu dituztela ulertuko da honako hauetarako gai direnean:

- Gutun pertsonal errazak idatzi: bere buruaz edo inguruaz hitz egin, eskertu edo barkamena eskatu.
- Gertaerak eta jarduerak labur eta oinarritzko eran deskribatu.
- Egitasmoak eta proiektuak deskribatu eta lehentasunak adierazi.
- Zerbitzuren bat edo informazioa eskatzeko gutun formal erraz eta laburrak idatzi.

MINTZAMENA

Ikasleek kurtso honen gaitasunak eskuratu dituztela ulertuko da honako hauetarako gai direnean:

- Elementu gutxi batzuk lotuz, istorioak kontatu edo zerbait deskribatu.
- Gai ezagunei buruz aurrez prestatutako jakinarazpen edo aurkezpen laburrak egin.
- Lehentasunak eta gustuak adierazi.
- Eguneroko truke eta zereginetan moldatu.
- Elkarrizketa laburretan nahiko eroso parte hartu, eta ohiko truke errazetan ahalegin handiegirik egin gabe moldatu.

AZKEN PROBAK

OINARRIZKO MAILA 1

AZTERKETAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

- Oinarrizko maila 1 kurtsoaren azken proba sail bakoitzak ezarritakoaren arabera gauzatuko da.

OINARRIZKO MAILA 2

AZTERKETAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA

- Azterketaren iraupen osoa: 2 ordu. Ordubete eta 45 minutu, saio bakarrean, irakurmen, entzumen eta idazmen probak egiteko; eta beste 15 minutu, beste saio batean mintzamenaren proba egiteko.
- Oinarrizko Mailako Ziurtagiria lortzeko ikasleak probetako bakoitza gainditu beharko du: irakurmena, entzumena, idazmena eta mintzamina. Atal batean lorturiko puntuazioa ez da beste ataletan lorturikoarekin konpentsatuko.

PROBEN DESKRIBAPENA:

IRAKURMENA

ARIKETA KOPURUA	GUZTIZKO PUNTUAZIOA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
3	20 puntu - % 25	12 puntu	40 minutu

Helburuak	Testu motak	Ariketa motak
<ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizimoduarekin zerikusia duen egoera bateko informazioa ulertzea. Testuko ideia nagusiak ulertzea. Testua zehatz-mehatz ulertzea, gutun pertsonal bat esaterako. Era errazean idatzitako eta gai ezagunei buruzko narrazio laburrak ulertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Informazio-liburuxkak. Argibide-orriak. Egunkari eta aldizkarietako interes orokorreko artikulak. Liburuen eta filmen aipamenak. Publizitate-iragarkiak. Gutun pertsonal errazak. Gutun formal edo komertzial errazak. 	<ul style="list-style-type: none"> Erantzuna: aukera ugariak. Egia-gezurra. Informazio-transferentzia. Antolamendu jarduerak. Lotu: (goiburua testuarekin...). Hutsuneak bete. Erantzun bakarreko galdera irekiak.

ENTZUMENA

ARIKETA KOPURUA	GUZTIZKO PUNTUAZIOA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2 / 3	20 puntu - % 25	12 puntu	20 minutu

Helburuak	Testu motak	Ariketa motak
<ul style="list-style-type: none"> Aukeraturikoa ulertzea. Informazio nagusia ulertzea. 	<p>Honako hauen grabazioak (audioa/bideoa):</p> <ul style="list-style-type: none"> Elkarrizketa informalak. Elkarrizketak banketxeetan, dendetan, etab. Iragarki publikoak eta publizitate-iragarkiak. Telefono-mezuak. Albiste laburrak. Eguraldi-iragarpenak. 	<ul style="list-style-type: none"> Erantzuna: aukera ugariak. Egia-gezurra. Informazio-transferentzia. Lotu. Erantzun bakarreko galdera irekiak.

IDAZMENA

ARIKETA KOPURUA	PUNTUAZIOAK	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 (5 + 15) puntu - % 25	12 puntu	45 minutu

Helburuak	Testu motak	Ariketa motak
<ul style="list-style-type: none"> Formatu labur eta errazean informazio zehatza ematea. 	<ul style="list-style-type: none"> Mezu elektronikoa. Postala. Oharra. 	<ul style="list-style-type: none"> Mezu bat, postal bat edo ohar bar, etab. idatzi. (40 hitz inguru).
<ul style="list-style-type: none"> Informazioa, argibideak edo azalpenak ematea/eskerrak ematea/barkamena eskatzea/norberari edo inguruari buruz idaztea/gertakari bat deskribatzea/zerbitzu bat eskatzea/informazioa eskatzea... 	<ul style="list-style-type: none"> Eskutitz pertsonal laburra. Gutun formal erraza. Jardueren kontakizun laburra. 	<ul style="list-style-type: none"> Gutun bat, deskribapen bat edo historia bat idatzi, testu labur baten erantzun gisa edo jarraibideei segituz. 110 hitz inguru

MINTZAMENA

ARIKETA KOPURUA	PUNTUAZIOAK	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
3	20 (4+8+8) - % 25 puntu	12 puntu	15 minutu

Helburuak	Testu motak	Ariketa motak
<ul style="list-style-type: none"> Nork bere burua aurkeztea. 	<ul style="list-style-type: none"> Bakarrizketa. 	<ul style="list-style-type: none"> Txartel batean jasotako edo aztertzailerak egindako galderei erantzunez, nork bere burua aurkeztu.
<ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizimoduarekin zerikusia duen gai bati buruz labur hitz egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> Elkarrizketa beste hautagai batzuekin. 	<ul style="list-style-type: none"> Bizpahiru ikasleren artean elkarrekintza sortu, txartel batzuetan eskaini zaien jarraibideen arabera.
<ul style="list-style-type: none"> Proposamenak egitea, adostasun batera iristen saiatzea... 	<ul style="list-style-type: none"> Elkarrizketa beste hautagai batzuekin. 	<ul style="list-style-type: none"> Bizpahiru ikasleren artean elkarrekintza sortu elkarri proposamenak egiteko eta akordioa lortzen ahalegiteko, eman zaien informazioaren arabera: agenda pertsonala, kultura-agenda, mapa...

OINARRIZKO MAILA 2, EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

IDAZMENA

Irizpidea	Azalpena
Egokitzapena	Zera neurtzen da <ul style="list-style-type: none">• hautagaiak zereginaren (gutuna, kontakizuna) deskribapenean emandako argibideei jarraitu dieten.• eskatutako informazioa eman duten (oharra, posta elektronikoa).• testua ulergarria den.• eskatu den testu-formatuari egokitzen zaion (Ad. gutun batean agurrezko formulak erabili dituen).
Kohesioa eta zuzentasuna	Ulegarritasuna zuzentasunaren gainetik. Hala ere, ulergarritasuna honako hauek oztopa dezakete: <ul style="list-style-type: none">• esaldien arteko kohesio falta.• hitz ezegokiak erabili.• akatsak hitzen ordenean.• akatsak hitzak deklinatzean.• ortografia-akatsak.

MINTZAMENA

Irizpidea	Azalpena
Egokitzapena	Zera neurtzen da <ul style="list-style-type: none">• hautagaiak solaskideari ulertzen dion.• egoki erantzuten duen.• modu ulergarrian hitz egiten duen.• hiztegi egokia erabiltzen duen.
Zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none">• Atzerriko azentua, etenak eta zalantzak saihestezinak dira hizkuntzen ikaskuntzako Oinarrizko mailan.• Ulegarritasuna zuzenketaren gainetik. Hala ere, ulergarritasuna honako hauek oztopa dezakete: atzerriko hizkuntzatiko edo bestelako akatsak.